

Busturialderako plan sozioekonomiko bat egiteko prozesua: itxurakeria baino ez

2024ko urtarrilaren 22an, Urkulluk iragarri zuen Administrazio Publikoek bi urteko epea hartuko zutela Guggenheim Urdaibai proiektuaren bideragarritasunari buruz hausnartzeko. Adierazpen horrek hautsak harrotu zituen inguruetan, eta batzuen eta besteen adierazpenak eragin. Horren aurrean, eta ezinbestean, EAJk eta PSEk Busturialdea biziberritzeko plan ekonomikoa aurkeztu zuten Legebiltzarrean urtarrilaren 26an, eta aho betez adierazi zuten eskualdeko gizarte-eragileak eta eragile ekonomikoak planaren parte izango zirela.

Hurrengo hilabeteetan, hauteskundeak tarteko, ez da horren inguruko albisterik izan, harik eta maiatzaren 9an [planari buruzkoak](#) xehatu zituen arte Aitziber Atxustegi kazetariak *Deia* egunkarian. Besteak beste, esaten zuen lehentasunezko ekintza-eremu izendatutako eremuetan jarraitu den metodologia bera jarraituko dela; hau da, «prozesu partizipatibo zabal bat» egingo dela, «eskualdeko eragile garrantzitsuak kontuan hartuko dituen». Horrekin batera, baieztapen hauek jaso zituen: plana zazpi hilabete eta erdiko epean egingo da; horretarako, prozesu partizipatibo bat abiatuko da; prozesu horretan, Busturialdeko eragile esanguratsuek parte hartu ahal izango dute (erakunde publikoekin, enpresekin, gizartearekin eta ezagutzarekin lotutakoak); prozesuak zenbait fase izango ditu; Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikita dagoen BEAZ sozietate publikoak hartuko du plana egiteko ardura.

Ekainaren 26an, Guggenheim Urdaibai Stop plataformak Urdaibaiko plan estrategikoan parte hartzeko gonbidapena jaso zuen. BEAZ sozietateak Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren esku utzi ditu lehen fasearen lanak, eta azken horiek dira gurekin harremanetan jarri direnak (Oskestra Deustuko Unibertsitatearen ekimena da, eta Deustu Fundazioaren bidez gauzatzen da). Elkarriketa bat egitea proposatzen ziguten, sei galderako gidoi itxi bat, “eragile eta alkate ezberdinek eskualdea nola ikusten duzuen” jakiteko.

Galderak oso orokorrak dira, eta berdin-berdin balio dezakete suspertze-beharrean dagoen Euskal Herriko edozein eskualdetarako; hain dira orokorrak, Guggenheim Urdaibai egitasmoa ez dela aipatu ere egiten. Bestalde, Orkestrakoek bidalitako lehen mezu hartan ez zen ematen urratsei, parte-hartzaileei eta helburuei buruzko informaziorik, eta alderdi horiek argitzeko eskatu genien. Erantzuna jaso bitartean, barne-gogoeta bat abiatu genuen Plataformaren Talde Eragilean, aztertzeko, besteak beste, zer legitimitate dugun horrelako prozesu batean parte hartzeko eta zer modutan jokatu behar genuen Orkestratik jaso genitzakeen erantzun desberdinen aurrean.

Uztailaren 5an, Orkestraren erantzuna jaso dugu, azalpen argiekin. Urratsei dagokienez, fase bakarreko prozesua izango da; hau da, Orkestra behin bakarrik bilduko da prozesuan parte hartzeko gonbidapenari baietz esaten dion eragile bakoitzarekin; beraz, besteak beste, ez da egongo eragileen artean hausnartu eta eztabaidatzeko fororik.

Parte-hartzaileei dagokienez, Busturialdeko alkate guztiek jaso dute prozesuan parte hartzeko gonbidapena, baita erakunde eta elkarte batzuek ere (ADR Urremendi, Bermeoko

Behargintza, AZTI, hainbat ikastetxe —Gernika, Barrutialde, Bermeo—, Bermeoko Arrantzale Kofradia, Bermeoko Tuna World Capital, UBAI Faktoria eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatua), guztiak ere Aldundiak hautatuak.

Elkarriketen helburuak direla-eta, erantzunak txosten batean jasoko dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiari bidali. Txostenean, elkarriketatutako pertsona eta eragileen izenak jarriko dira, eta, beraz, jasota geratuko da eskualdearen inguruko iritzia galdetu zaiela. Bestalde, galderei emandako erantzunen «sintesia» jasoko da, «zita literalik gabe». Txostena entregatzeko epeari dagokionez, hasiera batean esan ziguten uztailaren amaierarako prestatu behar zutela; oster, azken mezuan esandakoaren arabera, uztailaren 15eko asterako amaitu behar dute. Txosten hori plan estrategikoa egiteko erabiliko du Bizkaiko Foru Aldundiak.

Guggenheim Urdaibai Stop plataformak ardura eta erantzukizun handiz aztertu du egoera. Arduraz, behin eta berriro aldarrikatu dugulako Busturialdearen etorkizunaz berba egiteko prozesu bat abiatzeko beharra. Erantzukizunez, badakigulako eskualdeko eta eskualdez kanpoko eragile eta banako askok gure esku utzi dutela Guggenheim Urdaibai proiektua bertan behera uzteko zeregina, Plataformaren ekimenak bai kalean bai ekonomikoki babestuta.

Azterketa hori egiteko, kontuan hartu ditugu, besteak beste, azken hilabeteetan Busturialdeko Udaletan aurkeztu dugun mozioan adierazitako bi puntuak, [gure adierazpen publikoaren](#) 5. puntuan ere jasota daudenak:

1. [Udalari eskatzen diogu] **Guggenheim Urdaibai proiektua behin betiko alboratu dezatela** eskatzeko Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Guggenheim Fundazioari.
2. Eskualdea suspertzeko **plan sozioekonomiko serio bat egiteko konpromisoa hartzeko, diagnostiko erreal batekin eta Biosfera Erreserbaren markoan, herritarrak eta ingurumena lehenetsiz**. Gainera, eredu inposatzaileetatik urruntzea beste gobernantza-eredu bati heltzeko, udalak protagonista direla, **eskualdeko eragileekin batera eta partaidetza publikoa bultzatuz**.

Hori guztia aintzat hartuta, Guggenheim Urdaibai Stop plataformak erabaki du ez parte hartzea Bizkaiko Foru Aldundiak Orkestraren bidez abiatutako prozesuan.

Gogoetan erabilitako argudioen artean, honako hauek daude:

- Hau ez da eskualdea eskatzen ari den prozesu partizipatiboa. Gonbidatuen artean alderdi politikoak (alkateak) eta erakunde publikoak daude; ez, ordea, gure eskualdearen egoera ekonomikoa inork baino hobeto ezagutzen duten eragileak (sindikatuak) eta orain hartzen diren erabakiek etorkizunean inori baino gehiagori eragingo dieten pertsonen kolektiboak (gazte-mugimenduak), ezta eskualdearen dinamizazioaz epe luzez arduratu diren hainbat elkarte. Bestalde, prozesu honek ez du kontuan hartzen herritar banakoen parte-hartzea (berriki [Ramón Zallok adierazi bezala](#), «Kontsulta-eskubidea, erabakitzeko eskubidea izatera iritsi ez arren, kaltetuenari dagokio», *Viento Sur*, 24-07-03). Gainera, txostenean ezin izango dira irakurri parte-hartzaileen erantzun zehatzak, eta, beraz, ez da egongo eragile

bakoitzaren erantzuna identifikatzeko modurik. Azkenik, ez dago hausnarketa kolektibo bat egiteko fororik.

- Gidoiko galderak oso orokorrak dira, eta ez dago museoari buruzko galdera zehatzik. Plataformaren helburua argia eta ezaguna da: Guggenheim Urdaibai proiektua bertan behera uzteko eskatzen dugu, eta horretarako ari gara lanean. Galderetan proiektu hori aipatu ere egiten ez bada, zein da gure papera prozesu honetan?
- Behin eta berriro salatu dugu BFA eta EJ egitasmo honen inguruan erabiltzen ari diren gobernantza-eredua ilun eta autoritarioa. Bada, prozesu partizipatibo honen metodologiari begiratuta, argi dago eredu berarekin jarraitzen dutela: parte-hartzaileak Aldundiak hautatu ditu, ez haien benetako egokitasunari begiratuta, baizik eta isildu beharreko ahoak kontuan hartuta. Gu ingurumena eta eskualdea suntsituko lituzkeen proiektu baten aurka borrokatzeko gaude hemen, ez inori bere helburuak betetzen laguntzeko.
- Galderei begiratuta, erraza da txostenean jasoko diren ondorio nagusiak auresatea: eskualdeak eraldaketa ekonomikoa eragingo duen proiektu bat behar du, ingurumena eta herritarrak «ahalik eta gehien» (ez erabat) errespetatuko dituen; hau da, biosfera erreserbaren jasangarritasuna zaindu bai, baina horren aurretik etekin ekonomikoa jarrita). Jakina, ondorio horiek ez dute inondik inora ere justifikatzen Urdaibai biosfera erreserban Guggenheim Urdaibai proiektua ezartzea.

Gure ustez, prozesu honen asmo bakarra da BFaren eta EJren jarrera berrestea eta egitasmoarekin «bai ala bai» aurrera egiteko behar duten onarpen soziala lortzea; alegia, hauteskundeetan herritarrek esandakoari iskin egitea eta Guggenheim Urdaibai proiektuaren aurrera jarraitzeko onarpena beste bide batetik eskuratzea. Guggenheim Urdaibai Stop plataforma ez da sartuko joko horretan. Esan bezala, eskualdeko eragile sozioekonomiko guztiek izan behar dute prozesuan parte hartzeko aukera, eztabaida irekia eta eraikitzailea izan behar da, eta, beste ezertan hasi aurretik, mahai gainetik kendu behar da, esplizituki, Guggenheim Urdaibai proiektua.

Aldunditik bultzatutako elkarrizketen errondan parte hartuz gero, txarto eta interesatuki planteatutako prozesu bat eta hartatik ateratako ondorioak legitimatuko genituzke, eta ez gaude horretarako prest. Ostera, benetako prozesu partizipatibo bat egiten bada, eta gure ekarpena baliagarria izan daitekeela ikusten bada, hementxe izango gaituzue, lanerako, hausnarketarako eta eztabaidarako prest, eskualdeko erakundeekin, eragile sozioekonomikoekin eta herrikideekin batera Busturialdearentzat etorkizun duin eta jasangarri bat eraikitzen hasteko gertu. Bitartean, ez diegu utziko agintari politikoei eta Administrazio Publikoei Guggenheim Urdaibai Stop plataforma haien interesen alde erabiltzen.

Oharra: Orkestra elkarteak elkarrizketarako gidoi bezala proposatutako galderak [HEMEN](#) irakurri ditzakezu,